

Leizaola bost unetan

El Diario Vasco, 1989-04-11: 58.

Joan berri zaigun Jesus Maria Leizaola Lehendakari jaunari azken agurra egitera joaterik ez nuen izan, une horretan bertan ari bainintzen nire amatxo azken aldiz agurtzen.

Eta nire oroipenetatik, bost etorri zaizkit burura:

Lehenengoa, Leizaolari entzuna da, neu jaio aurretik gertatua. Getari kalean jaiotako donostiarraren aita Jose Zakarias, Zubieta auzoan zegoen "Barazar" baserrian jaioa zen, eta Jesus Mari haurrak hemengo amonarekin bere gogo-izpirituzko lotura handiak gorde zituen. Behin baino gehiagotan aipatu zidan amona hau eta bere baserrian eta euskaraz asko idatzi zuen euskal politikari honek artikulua "Barazar" firmatuaz adierazten zuen bere euskal obra handiak hemengo lotura handi hau.

Bigarrena, irakurria dut:

Espainiako Kongresuan diputatu zen 1931go irailaren 18a, Unamunorekin batera, eta honek euskaraz "izpiritua" adierazteko "gogo" hitza erabiltzen genuela, "apetito" adierazteko hitz bera, eta irrigarri bezala utzi nahi izan zuen euskara, eta bidez geu. Eta hara bere hitzegiteko txanda heldu zitzaionean, Leizaola gazteak, 35 urte, zer erantzun zion 65 urteko Unamunori, orduan Salamankako erretoreari: "Os ha presentado aquí una palabra que dice que nosotros interpretamos como "espíritu", y que en realidad significa "apetito"; al señor Unamuno se le ha olvidado decir que en castellano "espíritu" significa "aire", y que hacer una gran espiración o recibir una "inspiración", con la misma palabra significa en el primer caso "aire físico", y en el segundo caso un "cosa espiritual", algo relativo al espíritu". Pues qué extraño es, Sr. Unamuno, que en nuestra lengua, el euskara, también se pueda confundir la palabra "espíritu" y tener otros sentidos materiales. No necesito salir de esa línea argumental para ver que su argumentación es absolutamente inexacta. Porque en euskara, esa palabra significa "voluntad" y significa "memoria", de una forma absolutamente indiscutible, desde una época que yo no sé cuál será, pero que acaso sea de esa edad de las cavernas en la que la prensa gusta situarnos, me parece, con notoria inexactitud".

Hirugarrena gertatu zenean, Bilbon bertan ginen, baina ni mutikoa oraindik, eta gero, urtetara, kontatu zidana.

Bi aldiz joan zen egazkinez Bilbotik Valenciara gerratean: 1937go otsailaren 22an eta apirilaren 22an: lehenengoan, Haziendako gai bat tratatzera, eta bigarrena Aire-Ministroa zen Prietori egazkinak eskatzera; bidaia hau zela eta ez zuen Leizaola Gernikako bombardaketak Euskalerrian harrapatu. Halere, une horretan behar hau inoiz baino ageriagoan geratu bazen ere ez zen guretzako egazkinik Valencian: ez kaza eta ez bombardero ere, ale bat ere ez. Eta egun hartan abiadoreak, rusoen eraginez, omen, altxa zitzaizkion Aideko ministroa zen Prietori, eta bere argazkia hartu eta leihotik behera bota zuten.

Hara zer itzaropena guretzat!

Laugarrena gertatu zenean, ez nuen egoterik izan, Venezuelan nengoen eta.

Eskuina Lehendakari Agirreren zerraldoan zeukala, beste eskuarekin euri handitan bustitzen zegoen papera irakurri zuen finkotasunarekin: "Zeuk emandako exenplua jarraituz, ahaleginduko naiz zeuk Gernikan zinpetu zenuena betetzen, zeuk hil arte hainbesteko ardura eta eredutasunarekin bate zenuen bezala".

Eta halaxe izan da aken arte.

Bostgarrena, bai, berekin nintzen.

Joseba Rezola hil zitzaigunean, klandestinitatean izendatu ninduan EAJ-k Eusko Jaurlaritzan bere ordezkari izateko. Bilbon proposatu zidaten Retolazaren etxean, Ajuriagerra, Arzallus, Estrade eta Luis Mari Retolaza bera, noski, eta gipuzkoarren bat edo bi tarteko. Joan nintzaion Leizaola jaunari Baionako hotel batera, eta neuk hartutako enkarguari zentzu berri bat eman zion: nahi zuen neuk kargua Hegoaldean, klandestinitatean zerbitzea. Hala ari nintzela, eta Alderdi egiten nuen isilpean, 1973go bazkalondo batez Hondarribian hartu ninduan poliziak eta Irungo kalabozotik pasa arazi eta gero Iparraldera bota ninduten. Harrez gero, maizago egoten nintzen don Jesus Mariarekin, noski, Parisen Irujo bertan zegoela, Baionan noiznahi eta hilean behin Delegazioan Jaurlaritzako Batzarrerako etortzen zenean. Gainontzean, kartaz edo telefonoz. Parisera lehen aldiz joan nintzaion goiz hartan eman zidan lekzioa ez zait ahaztuko: Eguerdian irten ginen biok eta beste gauzetaz hizketan ari zitzaidala XVI. auzoko supermerkatu batera sartu ginen eta hasi zitzaidan janariak seinaleztatzen eta irazkinak egiten: zeintzuk ziren onak eta merkeak, eta nola prestatuak ziren gustagarrien... Banekien zertara nihoan, eta geure agintarien jarrera, han eta beste non nahi, nolakoa izan zen; zein hestu eta zintzo aritu ziren herriaren zerbitzuan lanean.

Ikasbidea laburra eta praktikoa izan zen.

Ez zait sekula ahaztu.

Hil zitzaigunean, ez nuen bere ondoan egoterik izan, neuk nahi izan nuen bezala, ordu batzu gero hil zitzaidan laurogeita hamar urteko ama hernaniarra, esan bezala, "Satse"ko ama Bixenta Lujanbio-ren "Latxe" baserria beti gogoan zuena; izan ere, baserria oso gertu baitugu gaur gehienbat kalekume garen euskaldunok.